Euskal AEn babes sistemek betekizun hauei eta hurren-kera honetan esleitzen diete baliabideen parte nagusia: zahartzaroa (%47,5), gaixotasuna / osasun laguntza (%29,6), langabezia (%8,3) eta elbarritasunak (%7,4). Daukagun informazio estatistikoak, 1995etik 2003ra bitarterakoak, horixe erakusten digu ohiko banaketatzat ekitaldi guztietan. Beste betekizunek askoz garrantzi gutxiago dute Euskal AEn babes sistemek ematen duten gizarte laguntzan: biziraunek gizarte gastuaren %3,2 hartzen dute; gizarte bazterketak %2,0; familiak eta seme-alabek %1,7 eta, azkenik, etxebizitzak %0,3.

Distribución funcional del gasto en prestaciones sociales. 2003

Gráfico 6 Grafikoa

Gizarte prestazioetarako gastua: banaketa betekizunen arabera. 2003



- Gaixotasuna/Osasun-atentzioa  
Enfermedad/Atención sanitaria
- Elbarritasuna  
Invalidez
- Zahartzaroa  
Vejez
- Umezurtz-alargunak  
Supervivientes
- Familia/Seme-alabak  
Familia/Hijos
- Langabezia  
Desempleo
- Etxebizitza  
Vivienda
- Gizarte-bazterkeria  
Exclusión social

Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.

En perspectiva longitudinal, la mayor parte de las funciones ha participado en el crecimiento del gasto en prestaciones sociales de acuerdo con lo que se espera de su peso relativo (ver Gráfico 7). Así, en el período 1995-2003, las dos funciones cuantitativamente más importantes, vejez y enfermedad / atención sanitaria explican conjuntamente el 83,9% del incremento total del gasto en prestaciones sociales. Desempleo constituye una importante excepción a esta norma general, puesto que, a pesar de ser la cuarta función por la magnitud relativa de su gasto en 2003, contribuye negativamente al crecimiento de las prestaciones sociales en el período. Como se ha indicado más arriba, este comportamiento excepcional de la función de desempleo se explica en el contexto de una reducción progresiva del número de parados en la C. A. de Euskadi a lo largo de todo el período considerado. Merecen también consideración aparte las contribuciones de las funciones exclusión social y familia e hijos. En ambos casos destaca no tanto la magnitud absoluta de la aportación, sino que ésta se encuentra notablemente por encima del peso relativo de la función

Aztergai dugun denbora tartean betekizun gehienek zeri-kusia izan dute gizarte gastuaren hazkuntzan beren garrantziagatik espero zen heinean (ikus 7. grafikoa). Ildo horretatik, gizarte prestazioetarako gastuak 1995etik 2003ra izan duen igoeraren % 83,9 kuantitatiboki pisu handiena duten bietara (zahartzaroa eta gaixotasuna / osasun laguntza) joan da. Joera nagusia hori izan bada ere, langabeziarena salbuespen nabarmena da, 2003ko gastuan laugarren betekizun hornituena izan arren beherantz bultzatu baitu, bitarte horretan, gizarte laguntzen hazkuntza. Gorago azalduenez, langabezi betekizunaren murrizketa horren azpian Euskadiko langabeen kopurua dago, aztertutako bitartean atzera egin baitu poliki. Aipatzekoak dira, orobat, gizarte bazterketa eta familia eta seme-alabak betekizunei esleitutako baliabideak, ez ordea ekarpenen balio absolutuagatik, baizik eta ekarpen horiek aise gainditzen dutelako betekizunen pisu erlatiboak. Hala, bada, gizarte bazterketarako gastua, urtean, %12,6 hazi zen batez beste, gainontzeko gizarte prestazioetarako gastua (%6,6) baino gehitxoago. Antzera gertatu zen familia eta seme-alaben kasuan,

correspondiente. Las aportaciones de estas dos funciones se explican principalmente por su particular dinamismo en el período: el gasto en la función exclusión social creció a un ritmo anual medio del 12,6%, claramente por encima del 6,6% que correspondió a la totalidad de las prestaciones sociales. Algo parecido sucedió en familia e hijos, cuyo importe ascendió un 11,9% anual, en parte por las mejoras aplicadas en la protección familiar de la seguridad social a partir de 2000. Este hecho no debe ocultar, sin embargo, que la atención recibida por la familia desde las instituciones de protección social en la C. A. de Euskadi, lo mismo que en España, está claramente por debajo de la norma europea. Si en Euskadi, en 2003, se destinó a esta función un 1,7% del gasto social, en EU-25 este porcentaje se elevaba hasta el 8,0%.

betekizun horretarako zenbatekoa %11,9 igo baitzen urtean, neurri batean 2000z geroztik hobekuntzak izan zirelako familiek gizarte segurantzatik jasotzen duten babesean. Datu horiek ez dute ahantzarazi behar gizarte babeserako erakundeek familietara bideratzen duten laguntza, bai Euskal AEn bai Espainian, Europako eredu-tik urrun samar dagoela. Horren erakusgarri 2003an, Euskadin, gizarte gastuaren %1,7 joan zen betekizun horretara, eta EB-25ean, aldiz, %8,0.

**4. TAULA. BETEKIZUNEN ERAGINA GIZARTE PRESTAZIOEN GUZTIRAKO HAZKUNTZAN (%)**  
**TABLA 4. CONTRIBUCIÓN AL CRECIMIENTO DEL VALOR TOTAL DE LAS PRESTACIONES SOCIALES. %**


	1995 - 1997	1997 - 1999	1999 - 2000	2000 - 2001	2001 - 2002	2002 - 2003	1995 - 2003
<b>Gaixotasuna/osasun-atentzioa</b>							
Enfermedad/Atención sanitaria	32,5	32,1	41,1	40,0	22,0	28,2	32,5
<b>Elbarritasuna / Invalidez</b>	20,3	7,4	4,7	4,0	3,9	5,6	7,6
<b>Zahartzaroa / Vejez</b>	45,6	58,9	67,7	40,8	48,0	49,3	51,4
<b>Umezurtz-alargunak / Supervivientes</b>	3,3	3,3	2,2	1,0	3,3	2,8	2,7
<b>Familia/semi-alabak / Familia/Hijos</b>	3,2	2,7	1,8	3,3	1,2	2,7	2,5
<b>Langabezia* / Desempleo*</b>	-7,6	-1,9	-18,8	6,3	12,7	6,1	-0,2
<b>Etxebizitza / Vivienda</b>	1,9	-2,9	-0,5	0,2	2,0	1,1	0,4
<b>Gizarte-bazterkeria / Exclusión social</b>	0,8	0,4	1,7	4,4	6,9	4,1	3,1
<b>GIZARTE-PRESTAZIOAK GUZTIRA</b>							
TOTAL PRESTACIONES SOCIALES	100	100	100	100	100	100	100

Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
 Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.

Peso (% gasto en prestaciones sociales) y contribución al crecimiento en el período 1995-2003

Gráfico 7 Grafikoa

Proporzioa (gizarte prestazioetarako gastuaren %) eta 1995-2003ko hazkuntzan izandako eragina



Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
 Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.


## DISTRIBUCIÓN DEL GASTO POR SISTEMAS DE PROTECCIÓN SOCIAL. 2003.

## GASTUAREN BANAKETA GIZARTE BABESERAKO SISTEMEN ARTEAN. 2003.

Gasto en prestaciones sociales por grupos de sistemas. 2003

Gráfico 8 Grafikoa

Gizarte prestazioetarako gastua sistema talde bakoitzean. 2003



Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.

De entre los sistemas de protección social que actúan en la C. A. de Euskadi destacan por la magnitud de los recursos dedicados, un 51,9% del volumen total de las prestaciones sociales en 2003, los que se agrupan en la categoría de Sistema de Seguridad Social. Es interesante recordar aquí que este sistema incluye la acción protectora ligada a los distintos regímenes de la seguridad social (general, autónomos, agrario, mar, carbón, hogar, y accidentes de trabajo y enfermedades profesionales), así como la protección familiar de la seguridad social. En este sentido debe tenerse en cuenta que la definición de esta agrupación se ha modificado con respecto a la que se empleó en ediciones anteriores de esta Cuenta de Protección Social de la C. A. de Euskadi, siempre con el objeto de garantizar la máxima homogeneidad entre esta operación y la que lleva a cabo el Ministerio de Asuntos Sociales con el título Cuentas Integradas de Protección Social en términos SEEPROS. La modificación ha supuesto que la asistencia sanitaria gestionada por la Comunidad Autónoma, así como parte de la actuación en materia de servicios sociales, que en ediciones anteriores eran contabilizados dentro del Sistema de Seguridad Social, lo sean ahora en el grupo de Otros sistemas de protección social.

El segundo grupo de sistemas por orden de importancia es precisamente el de Otros sistemas de protección social, que agrupa sistemas de diversa índole gobernados por instituciones tanto públicas como privadas y que suponen, en conjunto, 3.665 millones de euros dedicados a prestaciones sociales, el 39,4% del total. Papel desta-

Euskal AEn ari diren gizarte babeserako sistemetatik Gizarte Segurantzaren bildutakoak dira ekarpen gehienak darabiltzatenak gizarte prestazioetarako, eta izan ere, 2003an alorreko baliabide guztien %51,9 euren bideratu zituzten. Horren haritik ohartzekoa da sistema honek bere baitan hartzen dituela gizarte segurantzako erregimen guztiei dagozkien babes jarduerak, bai erregimen desberdinetakoak (orokorra, beregainak, nekazaritza, itsasoa, ikatza, etxea, lan istripuak eta lan gaixotasunak) baita gizarte segurantzaren famili babesa ere. Ildo bere-tik, kontuan izan behar da aurreko ekitaldietatik hona aldaketak egin direla talde horren definizioan, beraz, ez da orduko Euskal Aeko Gizarte Babesaren Kontuan erabiliko bera. Hala egin da eragiketa hau eta Gizarte Gaietarako Ministerioak GBEIESi helduz egiten duena (Gizarte Babeseko Kontu Integratuak) ahalik eta homogeneoenak izan daitezen. Moldaketa horren ondorioz, Autonomia Erkidegoak kudeatzen duen osasun laguntza eta gizarte zerbitzuetako jardura batzuk, ordura arte Gizarte Segurantzaren Sistemaren barruan kontabilizatuak, orain Gizarte Babeserako Beste Sistema Batzuk taldean kontabilizatzen dira.

Hain zuzen ere, aipatu dugun azken sistema talde hori (Gizarte Babeserako Beste Sistema Batzuk) bigarrena da bere garrantziagatik. Haren baitako sistemek, mota desberdinekoek eta erakunde publiko zein pribatuen ardura-pekoez, 3.665 milioi euro darabiltzate gizarte laguntzetan, hau da, alorreko diruaren %39,4. Talde horretan aipatze-

cado en esta agrupación le corresponde al que se ha denominado Sistema sanitario público que recoge la totalidad de la acción protectora en materia de asistencia sanitaria que lleva a cabo el Gobierno Vasco, bien directamente a través del Departamento de Sanidad, bien a través del ente público OSAKIDETZA. Este sistema dedica por sí solo 2.004 millones de euros a las prestaciones sociales, es decir, el 21,6% del valor total de las mismas en Euskadi. Otro sistema que demanda una atención específica en este grupo es el que conforman las prestaciones de las empresas en beneficio de sus empleados. Si se agrupan las prestaciones de obligado cumplimiento con las de carácter voluntario, ambos grupos suman un 6,1% del gasto total en prestaciones sociales, por un importe total 609 millones de euros.

Los dos grandes grupos restantes son el Instituto Nacional de Empleo (INEM), que aporta un 6,1% de todas las prestaciones sociales, en este caso dedicados casi exclusivamente a la función desempleo; y los Regímenes de funcionarios públicos, con un peso relativamente pequeño en la C. A. de Euskadi del 2,5%.

### DISTRIBUCIÓN DEL GASTO POR AGRUPACIONES INSTITUCIONALES. 2003.

Una visión diferente de la protección social, que se inaugura en esta edición de la Cuenta de Protección Social de la C. A. de Euskadi, es la que se obtiene de considerar las unidades institucionales encargadas de la gestión de las prestaciones, así como de las fuentes de ingreso que permiten financiarlas.

ko modukoa da Osasun Sistema Publikoa izenekoa, bertan jasota dagoelako Eusko Jaurlaritzak osasun alorrean ematen duen osasun laguntza, bai Osasun Sailak berak eskainitakoa baita OSAKIDETZA erakunde publikoaren bitartez bideratzen dena. Sistema honek, berez, 2.004 milioi euro erabiltzen ditu gizarte prestazioetarako, berauek Euskadin duten balioaren %21,6 alegia. Talde berean berebiziko garrantzia du, halaber, enpresek beren langileentzat ematen dituzten laguntzak. Biak batera zenbatuta, derrigorreko gizarte laguntzen taldeak eta borondatezkoenak alorreko gastuaren % 6,1 biltzen dute, 606 milioi euro guztira.

Beste bi talde nagusiak hauek dira: INEM (Enplegu Institutu Nazionala), gizarte laguntza guztien %6,1 bideratzen baititu, batez ere langabezia betekizunerako, eta funtzionario publikoen erregimenak, Euskal AEn azken hauek oso pisu handia ez badute ere (%2,5).


### GASTUAREN BANAKETA ERAKUNDE MULTZOEN ARTEAN. 2003.

Euskal Aeko Gizarte Babesaren Kontu honek gaiaren ikuspegi berri bat ematen digu, kontuan har daitekeelako zein erakundek kudeatzen duen laguntza mota bakoitza eta zein sarrera iturriekin finantzatzeko den.

Gasto en prestaciones sociales por agrupaciones institucionales. 2003

Gráfico 9 Grafikoa

Gizarte prestazioetarako gastua erakunde multzoen artean. 2003



Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.



El protagonismo de las instituciones de la seguridad social (Instituto Nacional de la Seguridad Social, Instituto Social de la Marina y Tesorería General de la Seguridad Social), junto con el hecho de que sus responsabilidades no hayan sido transferidas a las instituciones vascas, conducen al predominio de la Administración Central en la gestión de los sistemas de protección. Este grupo de instituciones destina un total de 5.436 millones de euros, un 58,5% del total en el ejercicio 2003, al abono de prestaciones sociales.

Las administraciones vascas, C. A. de Euskadi y Administración Local en sus tres territorios históricos, representan el 28,6% de las prestaciones sociales, como consecuencia de los 2.657 millones de euros que dedican a este fin. Destaca de entre el resto de las instituciones vascas OSAKIDETZA, que en su labor proveedora de prestaciones sanitarias administra un 15,2% del total.

El papel de las administraciones vascas en la gestión de las prestaciones sociales se distribuye, no obstante, de manera irregular entre las distintas funciones SEEPROS. Sus responsabilidades se concentran en la atención sanitaria y los servicios sociales, lo que implica que soporten un mayor protagonismo en las funciones vivienda, enfermedad / atención sanitaria y exclusión social. En otras funciones, como la de desempleo, sus responsabilidades son marginales y se reducen a algunas actuaciones en materia de formación profesional.

Gaur egun, Administrazio Zentrala nagusi da laguntza sistemen kudeaketan, batetik gizarte segurantzako erakundeek (Gizarte Segurantzaren Institutu Nazionala, Itsasoko Gizarte Institutua eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia) duten garrantziagatik eta, bestetik, haien eskumenak ez direlako euskal erakundeen esku utzi. Guztira, 2003ko ekitaldian gizarte prestazioetarako ordaindutakoaren %58,8 (5.436 milioi euro) erakunde multzo honek bideratu zuen.

Euskal Administrazioek (Euskal AEkoa eta hiru lurraldeetako toki erakundeak) gizarte prestazioetarako erabiltzen duten diru kopurua (2.657 milioi uro) helburu horrekin gastatzen denaren %28,6 dira. Gainontzeko euskal instituzioen artean aipatzekoa da OSAKIDETZA, osasun zerbitzuak emanez baliabideen %15,2 kudeatzen ditu eta.

Euskal administrazioek kudeatzen dituzten gizarte prestazioak, dena den, ez dira neurri berean banatzen GBEIES betekizunetan, eskumen nagusiak osasun eta gizarte zerbitzuen eremuei dagokielako, eta horrenbestez, garrantzi handiagoa hartzen dute etxebizitzak, gaixotasun/osasun laguntzak eta gizarte bazterketak. Beste betekizun batzuetan, aldiz, administrazio horiek ahalmen txikia dute, hortaz, jarduketak gutxi dira eta lanbide heziketaren alorrekoak.

**5. TAULA. EUSKAL ADMINISTRAZIOEN GASTUA GIZARTE PRESTAZIOETAN.**  
TABLA 5. GASTO EN PRESTACIONES SOCIALES DE LAS ADMINISTRACIONES VASCAS.

	<b>Euskal Administrazioak (euroak milakoetan)</b> Administraciones Vascas (miles de euros)	<b>Euskal Administrazioak/Gizarte laguntzak, guztira (%)</b> Administraciones Vascas/Total prestaciones sociales (%)	<b>Administrazio Publiko guztiak (euroak milakoetan)</b> Todas las Administraciones Públicas (miles de euros)	<b>Euskal Administrazioak/Administrazio Publiko guztiak (%)</b> Administraciones Vascas/Todas las Administraciones Públicas (%)
<b>Gaixotasuna/osasun-atentzioa</b>				
Enfermedad/Atención sanitaria	2.032.457	73,9	2.289.864	88,8
<b>Elbarritasuna / Invalidez</b>	104.938	15,3	606.975	17,3
<b>Zahartzaroa / Vejez</b>	254.963	5,8	3.962.879	6,4
<b>Umezurtz-alargunak / Supervivientes</b>	4.194	1,4	259.613	1,6
<b>Familia/semi-alabak / Familia/Hijos</b>	36.675	23,4	140.073	26,2
<b>Langabezia / Desempleo</b>	30.286	3,9	640.180	4,7
<b>Etxebizitza / Vivienda</b>	25.862	99,1	26.100	99,1
<b>Gizarte-bazterkeria / Exclusión social</b>	168.064	89,5	168.100	100,0

Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.

Por último, las instituciones privadas también ejercen un papel importante en la gestión de la protección social, encargándose del 12,9% de las prestaciones. Buena parte de este protagonismo corresponde a las empresas en su papel gestor de prestaciones que tienen como beneficiarios a sus propios empleados y sus familias, lo que incluye el pago de la incapacidad temporal que

Bukatzeko, erakunde pribatuek ere lan handia egiten dute gizarte babesaren kudeaketan, laguntzen %12,9 haien esku dago eta. Horretan pisu ez nolana hiko dute enpresek kudeatzen dituzten laguntzak, enplegatuei eta berauen familiei zuzenduak, besteak beste enpresak berak ezintasun iragankorragatik ordaindu beharrekoak (derrigorrekoak zein borondatez eta osagarri gisa ordain-



corresponde a las empresas (tanto el de carácter obligatorio como el que con carácter voluntario y complementario realizan estas instituciones). De este modo se administran 609 millones de euros, un 6,6% de todos los recursos dedicados a prestaciones sociales. Las instituciones aseguradoras privadas, en las distintas formas que adoptan, también efectúan una labor significativa en este aspecto; en particular las EPSV, que gestionan un 2,6% de las prestaciones sociales en Euskadi (además de llevar a cabo otras actividades financieras y de seguro que no son consideradas en esta Cuenta de Protección Social).

tzen dutenak). Bide horretatik 609 milioi euro kudeatzen dira, gizarte prestazioetarako baliabideen %6,6 alegia. Halaber, era guztietako aseguru erakunde pribatuak, batez ere BGAEak, garrantzizkoak dira zeregin hauetan, eta izan ere, Euskadin azken horiek gizarte laguntzen %2,6 kudeatzen dute (kontuan izan behar da, gainera, Gizarte Babesaren Kontu honek ez ditu jasotzen erakunde horien beste jarduera batzuk, finantza eta aseguru alorrekoak, hain zuzen).


## LOS INGRESOS DE LOS SISTEMAS DE PROTECCIÓN SOCIAL, 2002

## GIZARTE BABESERAKO SISTEMEN SARRERAK, 2002

Ingresos de los Sistemas de Protección Social por tipos. 2002

Gráfico 10 Grafikoa

Gizarte-babeseke sistema-taldeen sarrerak motaka. 2002



Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.

Los ingresos totales de los sistemas de protección social durante el ejercicio 2002 ascendieron a los 9.347 millones de euros, que sirvieron para financiar los gastos de dichos sistemas generando un saldo positivo de 572 millones de euros.

El carácter contributivo de los sistemas de protección social más importantes hace que en la C. A. de Euskadi la protección social se financie principalmente mediante cotizaciones sociales. Esta variante de ingreso supuso en 2002 un volumen de 6.701 millones de euros, es decir, un 71,7% del total. La mayor parte de estas cotizaciones sociales, el 73,8%, fueron satisfechas por los empleadores, mientras que las personas protegidas contribuyeron con un 24,4%.

2002ko ekitaldian gizarte babeserako sistemek, guztira, 9.347 milioi euroko sarrerak izan zituzten, eta behin beren gastuak diru horrekin finantzatuta, 572 milioi euroko saldo positiboa lortu zuten.

Gizarte babeserako sistema nagusiak kontribuziozkoak direnez, Euskal AEn gizarte babesa batik bat gizarte kotizazioen bidez finantzatzen da. Mota horretako sarrerak, 2002an, 6.701 milioi eurokoak izan ziren, guztikoaren %71,7, bada. Gizarte kotizazio horietatik, gehienak (%73,3) enplegatzaileek ordaindu zituzten, eta %24,4 abestutako pertsonak.


Las aportaciones públicas supusieron en 2002 un ingreso por valor de 2.565 millones de euros, contribuyendo así con un 27,4% a los ingresos totales de los sistemas de protección social.

2002an diru ekarpen publikoak 2.565 milioi eurokoak izan ziren, beraz, hortik etorri zitzaizkien gizarte babeserako sistemei sarrera guztien %27,4.

Fuentes de financiación por grupos de sistemas de protección social

Gráfico 11 Grafikoa

Finantzazio bideak gizarte babeserako sistema talde bakoitzean



Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003)  
Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003.

En España las aportaciones públicas constituyen la fuente mayoritaria de ingresos en los sistemas orientados a la cobertura sanitaria y los servicios sociales, mientras que los sistemas dedicados a las pensiones y otras prestaciones económicas se financian preferentemente a través de cotizaciones sociales. De ahí que el mix de financiación sea diferente en los distintos grupos de sistemas. Por ejemplo, el Sistema de Seguridad Social, lo mismo que el Instituto Nacional de Empleo y los Regímenes de Funcionarios Públicos se nutren de manera prácticamente exclusiva de cotizaciones sociales (en el caso de los sistemas especializados en la protección de los funcionarios públicos toda aportación de fondos que realicen las administraciones públicas debe considerarse cotización social del empleador). Por el contrario, la inclusión del sistema sanitario público y de los sistemas dedicados a la prestación de servicios sociales en el grupo de Otros Sistemas de Protección Social, tiene como resultado el predominio de las aportaciones públicas en sus ingresos.

La estructura de los ingresos de los sistemas de protección social que actúan en la C. A de Euskadi sitúa a ésta en el grupo de sistemas europeos con un perfil más marcadamente contributivo. En esa zona superior izquierda del Gráfico 11 se encuentran países como Bélgica, Holanda, Francia y España, representando a los miembros más tradicionales de la Unión Europea, así como Estonia, la República Checa o Letonia, de entre sus nuevos participantes. En el otro extremo, en el que las aportaciones públicas predominan como fuente de financiación

Espanian karpen publikoak sarrera iturri nagusia dira osasun eta gizarte zerbitzuetan diharduten sistementzat, baina pentsioak eta bestelako diru sariak helburu dituzten sistemek, ordea, gizarte kotizazioak dauzkate finantzabide behinena. Horiek horrela, finantzabide bakoitzaren pisua desberdina da sistema taldearen arabera. Esate baterako, bai Gizarte Segurantzaren Sistemak baita Enplegu Institutu Nazionalak edo Funtzionario Publikoen Erregimenek ere ia gizarte kotizazioei esker dihardute bakarrik (funtzionario publikoen babesean espezializatutako sistemei dagokienez, administrazio publikok egiten dituzten funts ekarpen guztiak enplegatzailearen gizarte kotizaziotzat jotzen dira). Horiek ez bezala, osasun sistema publikoa eta gizarte zerbitzuak ematen dituzten sistematik Gizarte Babeserako Beste Sistema Batzuk taldeari atxikita daude, eta ondorioz, ekarpen publikoak dira haien sarrera-bide nagusia.

Beren sarrera iturriengatik, Euskal AEn diharduten gizarte babeserako sistemak, Europa mailan, kontribuziozko jatorriak pisu handiena duen sistemen artean daude; 11. grafikoko goi-ezkerrean, multzo horretako herrialdeak daude, besteak beste Belgika, Holanda, Frantzia edo Espainia Europako Batasuneko -kide zaharrenen artean eta Estonia, Txekiako Errepublika edo Letonia azken kideen parte. Beste muturreko herrialdeetan, berriz, ekarpen publikoak bide nagusia dira gizarte babeseko gastuak finantzatzeko, eta hala gertatzen da, adibidez,


del gasto en protección social, se localizan los países nórdicos, como Dinamarca, Noruega o Islandia, que se caracterizan por sus altos niveles de intensidad protectora y sistemas financiados mediante aportaciones públicas. También pueden hallarse en este extremo casos como el de Irlanda que combina unos bajos niveles de protección con una financiación basada principalmente en la aportación de las administraciones públicas.

iparraldeko herrialdeetan (Danimarka, Norvegia, Islandia...), bertako babes sistemak, intentsitate maila ikaragarri handikoak, administrazio publikoetatik datozkien ekarpenekin finantzatzen baitira batik bat.

Fuentes de ingreso de los sistemas de protección social

Gráfico 12 Grafikoa

Gizarte-babeseko sistemen sarreren iturriak



Iturria: EUSTAT (Gizarte Babesaren Kontua 2000-2003) eta EUROSTAT (<http://epp.eurostat.cec.eu.int>). Ateratze data: 2006/01/03  
 Fuente: EUSTAT, Cuenta de Protección Social 2000-2003, y EUROSTAT <http://epp.eurostat.cec.eu.int>. Fecha de extracción: 3/01/2006

Erakunde Autonomiaduna  
Organismo Autónomo del



[www.eustat.eus](http://www.eustat.eus)